

EITEko zentro
teknologikoen
formakuntza

ETB2 • 11:55ean

EITEko zentro teknologikoen formakuntzaz hitz egingo dute Teknopolis saioan. Pili Kaltzadak aurkezten du.



gaurko filmak Ane Muñoz

■ LA CABALGADA
DE LOS MALDITOS.

Phil Karlsonen *western* entretenigarri eta nahikoa gogorra da. Banakuntza Gerraren garaian kokatuta dago, eta Espainian eta Italian sarritan filmatu ohi ziren *spaghetti-western*-en eragin nabarmenak dauzka. Zuzen eta polita da, eta aktore erakargarriek antzezten dute: Glenn Ford eta koadrila hantxe ariko zaizkigu, bereak eginez. Biolentzia gogorreko une asko ditu; horrek, ordea, indarra ematen dio istorioaren muinari.

■ BRUBAKER.

Robert Redford izar garesti eta erakargarriaren karrera luzean ezagunenetakoa bihurtu da. Protagonistarena egiten du, nahikoa txukun. Kartzelako arduraduna dela inori esan gabe, barne funtzionamendua hobeto ezagutzeko presoak bailitzan jokatu du. Guztiak engainatuko ditu, eta, gizajoa, laster izutuko da zein egoeratan bizi diren presoak gertutik ikusirik. Gertakari erreal batean oinarritua dago filmeko istorioa.

■ BRONXEKO ISTORIO BAT.

Robert de Niro aktorea maiz deitu izan dute mafiaren munduan giroturiko istorioak protagonizatzeke; *The Godfather*, *Goodfellas*, eta *Casino* handiak, beste batzuen artean, ederki antzeztu zituen, eta, nonbait, kameraren aurretik ez ezik atzetik ere jeneroa menderatzen zuela erakutsi nahi izan zuen. Hala, gaur Euskal Telebistako euskarako kateak eskainiko duen zinta txiki baina kurioso eta entretenigarri hau filmatzera ausartu zen, eta zuzendari gisa lehen aldia izateko, ez zuen ez, lan makalik burutu. Robert de Nirok berak protagonizatua da. Girotze txukuna azpimarratzekoa du, beste elementuen artean. Gomendagarria duzue.



Bette Davis
-argaz-
kian- eta
Joan Craw-
ford dira
¿Qué fue
de Baby Ja-
ne? filme-
ko izarrak.

Melodrama tragikoaren gailurra

■ ¿QUE FUE DE BABY JANE?. Robert Aldrichen maisulan paregabe honek ez du ikuslea nolanahi utziko. Melodrama tragiko gogorra da, benetako zeluloide bikaina, eta sekuentzia ahaztezinez josita dago. Bette Davis eta Joan Crawford izarrek, bi ahizpa ero antzezten dituzte. Zineman ezagutu ditugun ahizpa eroenak dira, beharbada, baina, aldi berean, oso sinesgarria da euren izaera. Zuri-beltzeko argazki zoragarriak asko laguntzen dio filmaren tonu patetiko edo beldurgarriari, eta Aldrichen istorioa kontatzeko aukeratu dituen plano guztiak, aho zabalik uztekoak dira. Hollywoodeko *star-system*-aren ondorioak aztertzen ditu: Jane, txikitan prodijioa izan zen; Blanche, berriz, ospe handiko emakume bihurtu zen gaztetan, baina berehala ahaztu egin ziren haiekin, eta garai bateko mito desagertutzat jo zituzten. Etxe handi batean bakar-bakarrik bizi dira, bazterturik, iraganeko mamuek erotuta.

Brubaker	♦ ♦ ♦ ♦
1980, Stuart Rosenberg	15:30 ETB2
La leyenda de Pocahontas	♦ ♦
1995, Daniele J. Suissa	15:35 TVE1
Los goonies	♦ ♦
1995, Richard Donner	15:35 A3
Loca academia de Policia V	♦ ♦
1988, Alan Myerson	16:10 T5
La isla de los corsarios	♦ ♦ ♦
1952, George Sherman	17:45 TVE1
La cabalgada de los malditos	♦ ♦ ♦
1967, Phil Karlson	18:00 ETB2
Ni dieux ni démons	♦ ♦
1998, Bill Condon	20:35 C+ (f)
Conversations (tres) privées	♦ ♦
1996, Rainer Kaufmann	20:45 Arte
Ma vie est un enfer	♦ ♦
1991, Josiane Balasko	20:50 TF1
Philadelphia	♦ ♦ ♦
1993, Jonathan Demme	20:55 F2
Babe, el crédito valiente	♦ ♦ ♦
1995, Chris Noonan	21:40 TVE1
Una noche fría hasta el...	♦ ♦
1997, Serge Rodnursky	22:15 ETB2
Bronx-eko istorio bat	♦ ♦
1993, Robert de Niro	22:30 ETB1
Aguas turbulentas	♦ ♦
1997, David Drury	22:30 C+ (e)
Les nerfs à vif	♦ ♦
1991, Martin Scorsese	22:55 TF1
El engaño	♦ ♦
1997, Matt Dorf	23:40 TVE1
La fille	♦ ♦
1978, Alberto Lattuada	00:05 F3
Atlantis	♦ ♦
1991, Luc Besson	01:10 TF1
Pecados	♦ ♦
1993, Beau Bridges	01:40 A3
¿Qué fue de Baby Jane?	♦ ♦ ♦ ♦
1962, Robert Aldrich	01:45 T5
Puede ser divertido	♦ ♦
1995, Azucena Rodríguez	01:55 La2
Caza en Vietnam	♦ ♦
1983, Anthony M. Dawson	02:20 TVE1
La corea	♦ ♦
1976, Pedro Olea	03:20 La2
Baraka, el último paraíso	♦ ♦ ♦ ♦
1992, Ron Fricke	03:25 A3
Algo diabólico	♦ ♦ ♦
1971, Steven Spielberg	03:30 ETB2
No temas a la ley	♦ ♦
1962, Victor Merenda	03:50 TVE1

♦ TXARRA ♦ ♦ ESKASA ♦ ♦ ♦ BALEKOA ♦ ♦ ♦ ♦ ONA ♦ ♦ ♦ ♦ BIKAINA

ETB 1

07:40: Gure lanbide zahar-
rak.08:05: Euskal Herrirako ga-
raia.

08:20: Superbat.

10:15: Egi bidean.

10:30: Meza Santua.

11:30: Kirolez kirol.

Pilota: Eskuz banaka.
Sestaoko Torneoa.Belar hockeya: 1 mai-
la: Donostiako Atleti-
ko-Getxo jolaseta.

13:30: Gaur egun.

13:50: 1 Formula.

16:00: Juanito Oiarzabal: 14
urte-14 zortzimilako.16:30: Txirrindularitza:
Errioxako Itzulia.

16:55: Kirolez kirol.

Pilota: Eskuz binaka:
Atxa-Sukia / Berraon-
do-Auxkin. Pilota: Es-
kuz banaka, 1. maila:
Lasa III-Olaizola I.

19:30: Gaur Egun. Albistegia.

19:50: Kirolez Kirol.

21:30: Beren kasa.

22:30: Zine oro.

Bronx-eko istorio
bat. Zuz.: Robert De
Niro. Akt.: R. De Niro.

00:30: Ñu migratzaileak.

01:25: Hitzaro.

01:55: Iparraldea: Le maga-
zine du Pays Basque.

02:15: Visions of the orient.

03:10: Mugak gaindituz.

03:35: Teknopolis.

04:05: 240 Robert.

04:50: Elkartasunaren bide-
ak.

05:25: Haran eta gailur.

ETB 2

08:00: Desde el galline-
ro.08:25: Del país de los
vascos.09:00: Tiempo para
Euskal Herria.09:05: Oficios tradicio-
nales.

09:35: Luar.

10:35: Vida salvaje.

11:25: Europa, Europa.

11:55: Teknopolis.

12:25: Palabra de ley.

12:55: Lengua viva.

13:25: Sustraiak.

14:00: ETB Kirolak.

14:28: Teleberri.

15:30: Zinema.

Brubaker.
Zuz.: Stuart Rosen-
berg. Akt.: R. Redford,
Yaphet Kotto.

18:00: Zinema.

La cabalgata de
los malditos.
Zuz.: Phil Karlson. Ak-
toreak: Glenn Ford, In-
ger Stevens. 1967.

19:25: Pensacola.

20:10: Zoomados.

20:58: Teleberri.

21:30: El derby.

22:15: Camara acción.

Una noche fría
hasta el
amanecer.Zuz.: Serge Rod-
nursky. Akt.: David
Chuns, Anthony Mi-
chael Hall.23:55: La noche fantás-
tica. Más allá del lími-
te: 'El despertar', 'Una
nueva vida'. Histo-
rias de la cripta
(01:25ean): 'La capri-
chosa', 'Página de su-
cesos', 'Perro de fami-
lia'. Cuentos asom-
brosos: 'Dorothy y
Ben', 'La mayor atrac-
ción'.

03:30: Zinema.

Algo diabólico.
Zuz.: Steven Spiel-
berg. Akt.: Sandy Den-
nis, Darren McGavin.

04:45: Asteberri.

05:30: Europa, Europa.

06:00: Empresa vasca.



♦ Suk 1
t tx k
ltz r k.
♦ r ktu k
r n r z.

L Z r t , 2.
T l , 3 5 2 1
T L S



irratia ♦

Euskadi Irratia. Igandero lege, goizeko 10:00etan hasiko da *Bide batez* saioa, eta ordu biak arte irauango du. Hiru ordu horietan kontu asko eta gonbidatu mor-doska pasatuko dira, eta horien artean bat, orain arte sekula Euskadi Irratian izan gabea: Goio Garaialde. Ahoko soinua jotzen artista da. Hamaiketarik hamabietara izango da irratsaioan. Eguerdian ostean, Joxe Mari Urkia joango da, Euskal Herriko bainuetxeak oso ongi ezagutzen dituen

mediku-irakaslea da bera. Etxe horiek azkenaldian duten estimazioaz hitz egingo dute.

Herri Irratia. Goizean goiz I albistegia, ohi lege, 08:00etan hasiko da eta ordubete irauango du. Baina, Loiola Irratian erroa-rioia emango dute 08:30etatik 09:00etara. 09:00etan, aldiz, meza hasiko da. Ordubete pasatakoan, *Goizean Goiz II* hasiko da. 13:30etan, berriz, kirolaren tartea hasiko

da, *La movida deportiva* hasiko baita. 14:30etan *Brújula* bidaia eta abenturazko saioa hasiko da Jesus Torquemadarekin. 15:30etatik aurrera, berriz, musikaren txanda izango da, eta 17:30ak arte luzatuko da. Ordu horretan errealezaleentzako futbol partidu garrantzitsua hasiko da: Extremadura-Real. 20:30etatik 20:45etara, ostera, *Kirol flaxa* irratsaioa egingo du Iñaki Izagirrek. Hori amaitutakoan, Efe agentziako albistek osatuko dute programazioa.